

# irudiak kantari



## BIDAIA BAT EUSKAL KANTUAREN MEMORIAN



Gure bidaia 1950.eko hamarkadan has dezagun. Erran behar da hasteko XIX. mendetik geroz euskaldunek kantari fama bildu dutela. Horra zer zion Aita Donostia kantu-biltzaile ezagunak : « *Euskaldunak kantatzen du, denbora guzian eta edozein tokitan : etxean, elizan, karrikan, baserrian. Izan alai ala triste, kantatzen du, iratze pikatzean makurtua delarik, edo/ta brentsan sagarinoa egitean* »

Arbelak

1etik 3.era



### “Aspaldiko denboretan” - Queheillatxi (1960) - Sü azia elkarte

Orduko ikuspegi horrek jatorri euskalduna duten kantari batzuen arrakasta azaltzen du. Frantzian, Luis Mariano edo Andre Dassary izan dira ospetsuenak.



### “Fandango du Pays Basque” - Luis Mariano

Espainiako gerra zibilaren ondotik diktadura frankista Hego Euskal Herrian plantatzen delarik, Saran, errefuxiatu batzuek “Eresoinka” abesbatza osatzen dute. Horrek euskal kantua eta horko gertakari ilunak erakustera emanen dizkio Europa osoari.



### “Eusko gudariak” - Joseba Tapia

Oldarra eta Etorki taldeak izanen dira Eresoinkaren oinordeko famatuenak.



### “Goizean argi hastean” - Etorki abesbatza

Atzerrian, euskal kantua gizon-koruen bidez egiten da ezagun.



### “Boga Boga” - Oldarra abesbatza

Musika sakratuak edo kantu erlijiosoak badu oihartzunik abesbatzen garapen horretan. Betidanik eliza-kantuak ukan du garrantzi handia tokiko gizartean.



### “Jainkoaren ama” - Radio Lapurdi irratia

Horra zer zioten Pariseko bi ethnologok 1947an : « *Ohikoa da eta xuxen erraitea musika euskal biziari errotik lotua dela. Euskalduna, gazte-gazterik hasten baita kantuz. Gizonak mezarat doaz kantatzeko eta frangotan bakarrik hortarako* »

Arbelak

4etik 6.era



Koruek usu bereganatuko duten erreperitorio hori 1962an Vatikanoko II. Kontzilioak onartu euskarazko liturgiak aberastuko du. Belokeko beneditano euskaratzaileek badute horretan zerikusirik.



### “Otoi Jauna” - Belokeko fraileak

Gaurregun abesbatza anitz bada Euskal Herrian. Europako dentsitate haundiena omen dugu. Koruek lehen lehenik edozein kantari amaturrei biltzeko eta euskaraz kantatzeko parada ematen diete. Koru batean ari diren %70ek talde bizidun batean parte hartzeko egiten dutela adierazten dute.



### “Kantuz” - “2000 choristes pour l’an 2000”

Grabatze teknologia berriei esker kantu bilketak antolatzen dira herrietan, Zuberoan bereziki. Adibide gisa, Jean-Pierre Caubet 1947an grabatua izan zen, Pariseko bi ikerlarik galdeginiak, Belatxa, Xiberoko hitzik gabeko kantua ematen zuela.

Arbela

7.a



### “Belatsa” - J.P. Caubet - ATP Museoa - Parise



Zuberoak baditu ere bere sortzaileak. Jean Bordazarre "Etxahun-Iruri"-k bere olerkiz eta musikaz tokiko kantutegia aberastuko du, Euskal Herri osoan famatuak bilakatuko diren anitz kantu berri plazaraziz.



**"Oihanean" - Etxahun-Iruri**

Bitartean, nazioarteko folk mugimenduaren eraginez, euskal kantua 1960ko urteetan antzaldatu da. Artista gazte suhar eta kementsuei esker, musika modernoaren alde ezberdinetaz haztuko da, batzutan egiazko aurkakotasunez, hegoaldean bezala, gizartea frankismoak eta diktaturak errausten baitu.

Arbela  
8.a



**"Kapitain pilotu" - Soroak (X.Haran bilketa - Sü Azia elkartea)**

1958an, Bilbon, Soroak laukotea sortzen da. Euskal kantagintzaren berritzearen abiapundua izanen da. Robles-Aranguiz anaiak kitarra espainolarekin eta erritmo modernoan eman ohiko kantuek, eztabaida asko sortarazi bazuten ere garai hartan, euskal kanta berriari bidea erakutsi zioten.



Ildo honi jarraituz, Iparraldean "euskal kanta berriaren aita" bilakatuko den Mixel Labéguerie-k, kantu moderno horren aldeko engaiamendua hartzen du.

Anitz berrikuntza daramate Labégueriek idatzi eta musikan ezarri kantuek.

1961ean idatzi « Gu gira Euzkadiko » abestia, hegoaldean bereziki abertzale gazte askoren leloa bilakatu da.



**"Gu gira Euzkadiko" - Mixel Labéguerie**

Labeguerieren oinordeko anitz izanen dira Iparraldean : Manex Pagola, Peio ta Pantxoa, Beñat Sarasola, Erramuzpe eta Berterretxe, Etxamendi eta Larralde...

Azken bikote hori 1967an herriz herri kantatzen hasi zen. Eñaut Etxamendik idatzi testuen bidez, beti ahots hutsez, lehenak izan dira iparraldeko barnekaldeak bizi duen egoera sozio-ekonomiko larriaren salatzeke.

Arbelak  
9.etik 10.era



**"Bidez bide" - Etxamendi eta Larralde**

Telesforo Monzon olerkari eta politika gizon errefuxiatua Iparraldeko eta Hegoaldeko abertzaleen lokarri bilakatzen da nolazpait. Garai hartan berak idatzi kantuak Pantxoa eta Peio bikote lapurtarraren bidez eginen dira ezagun.



**"Batasuna" - Peio Ospital eta Pantxoa Carrere**

1968an, Derion, Bizkaian, Frankoren diktadurari oldartu zitzaion seminarista talde bat bortizki gastigatua izan zen. Oldartze horren sinbolo gisa seminaristek grabatu Gogor diskoa lekuko daukagu. Bertan "Egun da Santi Mamiña" kantu famatua agertzen da.



**"Egun da Santi Mamiña" - Mikel Laboa**

Hegoaldean beti, 1965ean, "Ez dok amairu" taldea sortzen da euskal musika tradizionala aztertzeke, zabaltzeke eta gaurkotzeke helburuekin. Errejimen frankistak traba anitz jarri zien. Mikel Laboa, Xabier Lete, Benito Lertxundi, Antton Valverde, Artze anaiak, Lurdes Iriondo gisako artistak izan ziren mugimendu horren zutabeak.



**"Festa bukatzean" - Lurdes Iriondo**

Euskal kultura eta gizartea inarrosi zituen "Ez dok amairu" mugimendua 1972an desegiten da. Horren ondotik bakotxak bere bidea urratuko du. Entzuleak milaka biltzen dituzten kantaldien garaia da. Orduan euskal kantu berriak, protesta mugimendu internazionalarekin bat egiten du.

Arbelak  
11.etik 12.era



**"Nafarroa arragoa" - Xabier Lete**

Euskal kantu berriaren eszenatokian, Xabier Lete eta Benito Lertxundi bezalako kantarien ospea sendotzen da. Xabier Lete, 1976 aldean hasi zen bakarka kantatzen, sekulako kantu ederrak plazaratuz.



Benito Lertxundi. Hitz eta musika ederrenen bila, ikerketa eta inspirazioa uztarturik, sorkuntzaren ildoak urratzen ditu munduko beste musiketan oinarriturik.



**“Gure bidea galduak” - Benito Lertxundi**

Ez dok amairuko kantari ohiez bestalde, urte haietan Maite Idirin bezalako kantarisak entzun zitekeen.



**“Nere aitaren etxea” - Maite Idirin**

1975 aldean, Hegoaldean, diktadura frankista hatsik gabe gelditzen ari da Espainian, nahiz tentsioa oso azkarra den. Euskara klandestinitatetik ateratzen hasten da. Euskal kantuek euskal gizartearen esperantzak eta nahiak aldarrikatzen ditu. Gontzal Mendibil eta Urko bezalako kantariak askatzen den gizarte horren bozeramaile bilakatzen dira.



**“Bagare” - Gontzal Mendibil eta Xeberri**

1976an antolatu “24 ordu euskaraz” kontzertuak jende andana biltzen du euskal kantu berriaren ordezkarien inguruan. Mikel Laboaren “Txoria txori” kantuarekin sortu zen sukarra aipagarria izan zen.



**“Txoria-txori” - Mikel Laboa**

Hortik aitzina, kantaldien arrakasta moteltzen doa. Beste artista batzu egiten dira ezagun. Haien artean Estitxu. Bere garaiko euskal kantagintza nabarmenki aldarrikapenei lotua bazen ere, Estitxuk beste esparruetan murgiltzea hautatu zuen, sentikortasunez eta poesiaz josi kantuak eskainiz.



**“Primaderari” - Estitxu**

Natxo de Felipe, Txomin Artola eta Amaia Zubiria buru, Haizea eta Oskorri bezalako taldeek plazarazi folk mugimenduak gero eta leku gehiago hartuko du.



**“Brodutzen ari nitzen” - Haizea**

**“Aita semeak” - Oskorri**

Ipar Euskal Herrian Guk taldeak bide berri batzu urratzen ditu. Joanes Borda eta Beñat Sarasolaren eraginez sortu talde horrek 1980ra bitartean segituko du antzerki moduko emanaldiak eskaintzen, beti Euskal Herriko arazo sozialak, ekonomikoak eta politikoak adieraziz.



**“Arbola” - Guk**

Orduan etorkizunari begira ondorio anitz ukanen dituen gertakizun batek inarrosiko du sakonki Euskal Herriko ingurune musikala : Euskal rockaren munduratzek. Niko Etxart, Anje Duhalde eta Mixel Ducau-k zuten lehen harria pausatu.

“Parisen sortua izanez, Niko Etxart-ek Rock’n Rolla bertan ezagutu zuen. 1972an, Euskal Herrirat itzuli zen euskarazko rockaren egiteko. Talde ezberdinetan aritu ondoan, « Minxoriak » sortzen du eta 20 urtez, kontzertu anitz ematen Euskal Herrian.



**“Izan gira” - Odol Berria - 1975**

El Fuego dantzaldi taldeko baterijoilea zelarrik, Anje Duhaldek Benito Lertxundi-k euskaraz eman Donovan-en bertsio bat entzuten du eta berehala ohartzen da euskarak edozein musika mota egiteko balio duela. 1973an Mixel Ducau-ren ezagutza egiten du, eta Errobi taldea sortzen.




**“Gure lekukotasuna” - Errobi**

**“Aitarik ez dut” - Errobi**

Errobi desegitean, taldekideak bertze musika proiektuetan murgildu ziren. Hala nola, Anje Duhalde, Akelarre dantzaldi talde mitikoan sartu zen, bakarkako bideari ekin aitzin, 1985ean.




**“Akelarre” - Akelarre -**



Arbelak  
13.etik 14.era



Arbelak  
15.etik 16.era



Arbelak

17.a

Hego Euskal Herrian Franco hil eta, finkatu izan zen Autonomia estatutuak ez die erantzuten independisten itxaropenei eta beraz ukatzen dute. Denbora berean, 1980ko hamarkadaren hasieran, gaitzeko ekonomia krisian dago. Egoera horretan, Erresuma Batuko punk mugimenduan oinarritu « Euskal rock radikala » sortzen da. Hiriko bizimoduak eta politika oldartzeak dute inspiratzen. Horren ordezkarietariko bat Hertzainak taldea izanen da.



**“Pakean uzti arte” - Hertzainak -**

Beste askoren artean, merezi du behar bada Muguruza anaiek sortu Kortatu taldearen ibilbidea aipatzea.



**“Zu atrapatu arte” - Kortatu**

Beren 1985eko lehen diskoan bakarrik euskarazko bi kantu baldin baziren ere, beren konbentzimendu pertsonalekin bat egin nahian, euskararen tokia gero eta haundiagoa izan zen ondoko lanetan.



ITOIZ



1978an sortu ITOIZ taldeak, euskal rockaren historiako pop ondare gaitza uzten digu, « rock radikal »-etik kanpo egonez. Alabainan, ez du sekulan mezurik eman nahi ukan, lehentasuna hitzen edertasunari eta musika kalitateari emanez.



**“Lau teilatu” - Itoiz - 1978**

Ruper Ordorika bezalako aparteko kantarien musikak eta hitzek oroitarazten digute ere ezin dela 1980ko euskal kantagintza rock radikalean muga.



**“Hautsi da anfora” - Ruper Ordorika**

Arbela

18.a

Hego Euskal Herrian beti, Imanol edo Mikel Markez bezalako musikari eta olerkarien obrek erakustera ematen dute euskal kantagintzaren heldutasuna eta aniztasuna.



**“Lau haizetara” - Imanol / “Etzera” - Mikel Markez**

Iparraldean, anitz izan dira plazaz plaza ibili diren taldeak eta kantariak. Nork ez du ezagutzen Erramun Martikorena ?



**“Bortz iturri” - Erramun Martikorena**

Arbelak

19.etik 23.era

Jean-Mixel Bedaxagarrek, ohiko kantu moldeei jarraikiz, sorkuntzari leioa ideki dio ere frangotan.



**“Amodioaren pena” - Jean-Mixel Bedaxagar**

Etxamendi eta Larralde a kapela kantatuz egin dira ospetsu.



**“Ama zer duzu nigarrez” - Etxamendi eta Larralde**



Zuberoan, Pier-Pol Bertzaitz-ek euskal ohidura oinarritzat hartuz, kantu intimisten bidez, ikuspegi moderno eta aitzindaria erakusken du.



**“Baratze bat” - Pier-Pol Bertzaitz**

Bakoitza bere sailean, batzuk kanpoaldean dira famatuak bilakatu, hala nola Peio Serbielle, Beñat Achiary, Mixel Etcheverry...



**“Koblakariak” - Peio Serbielle / “Agur Bettiri” - Beñat Achiary**

Taldeak ere ukan dute garrantzia : Otxalde, Aritzak, Jojo eta Ramuntxo e.a.



**“Aitarik ez dut” - Aritzak**

Arbelak

24.etik 26.era

Gaurregun, euskal kantagintzak musika modernoa, unibertsala eta arrakastatsua izateko osagai guziak baditu, hip hop-etik techno-ra, ska-tik hardcore-raino...



**“Arratsalde honetan” - Sorotan bele / “Axun klakla” - Oskorri / « Skizofrenia » - Betagarri**

Tapia eta Leturia bikotearen baita Kepa Junkeraren eraginez Trikitixak ezagutu duen berpizteak laburbiltzen du kantagintzaren idekitzea eta geroa.



**“Galdurikan nago” - Tapia eta Leturia**

Sorkuntza gogoan, oroimena bihotzean.



**“Fali Fali” - Kepa Junkera**